



TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea

EGUNA / FECHA: 5/10/2016

HASIERA / INICIO: 20:15

AMAIERA / FINAL: 20:20

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDE

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2016ko irailaren 21eko akta onartzea.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 21 de septiembre de 2016.

2.- J. M. A. V.ren idazkia.-

Kontuan hartuta J. M. A. V.k aurkezturiko idazkia, zaborra biltzeko edukiontzi bat lekuz alda dadin proposatzeko, Axpe auzoko 16.eko E etxebizitza paretik birgaitu berri den oinezkoen pasabidetik gertuko leku batera, zarata eta usain gogaikarriak eragiten dituelako; kontuan hartuta zaborra biltzeko zerbitzuaren enpresa arduradunak eginiko kontrako txostena, proposaturiko lekuan arrisku handiagoa dagoela dioena, ibilgailuek ezingo luketelako ikusi eta edukiontzia husteko kamioia aurreratu beharko luketelako; Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aurkezturiko proposamena gaitzestea.

2.º.- Escrito de J. M. A. V.-

Visto el escrito presentado por J. M. A. V. proponiendo el traslado de un contenedor del servicio de recogida de basura ubicado frente a la casa n.º 16 E del barrio Axpe a otra ubicación cercana al paso de peatones recientemente habilitado, debido a las molestias por ruidos y olores que ocasiona; visto el informe contrario emitido por la empresa encargada del servicio de recogida de basuras, que alega una mayor peligrosidad en la nueva ubicación por falta de visibilidad para los vehículos que tendrían que adelantar al camión encargado del vaciado del contenedor; la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó rechazar la propuesta presentada.

3.- A. F.en idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen A. F.i proposatzea Presapeko eremuan gaituriko baratzetxoetako bat erabiltzea.

3.º.- Escrito de A. F.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar a A. F. la utilización de una de las minihuertas habilitadas en la zona de Presape.

4.- “Laia Eztabaida Taldea”ren idazkia.-

Kontuan hartuta “Laia Eztabaida Taldea” elkarteak aurkezturiko idazkia, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen onartzea Altamirako Kultur Etxeko ekitaldi-aretoa erabiltzea drogei eta droga-mendekotasunari buruzko erakusketa bat egiteko, azaroaren 14tik 25era.

4.º.- Escrito de “Laia Eztabaida Taldea”.-

Visto el escrito presentado por la Asociación “Laia Eztabaida Taldea”, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de utilizar el salón de actos de la Casa de Cultura de Altamira, para realizar una exposición sobre drogas y drogo dependencia, del 14 al 25 de noviembre.

5.- “Laia Eztabaida Taldea”ren idazkia.-

Kontuan hartuta “Laia Eztabaida Taldea” elkarteak aurkezturiko idazkia, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen onartzea Altamirako Kultur Etxeko ekitaldi-aretoa erabiltzea hainbat jarduera egiteko, oste faxistak gure herrian sartu zirenekoari buruz, martxoaren 3an 18:30etik aurrera, apirilaren 24tik 29ra (erakusketa baterako) eta

5.º.- Escrito de “Laia Eztabaida Taldea”.-

Visto el escrito presentado por la Asociación “Laia Eztabaida Taldea”, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de utilizar el salón de actos de la Casa de Cultura de Altamira, para realizar diversas actividades sobre la entrada de las tropas fascistas en nuestro pueblo, el día 3 de marzo a partir de las 18:30 horas, del 24 al 29 de abril



apirilaren 25etik 27ra, 18:00etatik aurrera.

(para una exposición) y el 25 y 27 de abril, a partir de la 18:00 horas.

6.- Busturialdea Tenis Kirol Elkarteen idazkia.-

Kontuan hartuta A. N. B.k “Busturialdea Tenis Kirol Elkartea”ren izenean aurkezturiko idazkia, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen onartzea tenis-pista bat larunbatetan 10:00etatik 13:00era erabiltzeko eskaera.

6.º.- Escrito de Busturialdea Tenis Kirol Elkartea.-

Visto el escrito presentado por A. N. B., en representación de “Busturialdea Tenis Kirol Elkartea”, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de utilización de una pista de tenis los sábados de 10:00 a 13:00 horas.

7.- Hirigintza-baimenak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txostenak ikusita, aho batez erabaki zuen honako hirigintza-baimenak ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horien edukia eskatzaileari jakinarazi behar izanda:

- 1.- Sukarrietako Udalekua (19/16 Txost.), barrualdean eraberritze-lanak egiteko, zehazki behe-solairua eta lehen solairua atontzeko, irakaskuntzarako egokitzeko, Axpe auzoan, 34.946,99 €-ko aurrekontuarekin.
- 2.- M. J. R. A. (26/2016 Txost.), baserria eraberritzeko, Axpe auzoko 89.ean, 104.224,37 €-ko aurrekontuarekin.
- 3.- M. C. E. B. (42/16 Txost.), baserria partzialki eraberritzeko, San Kristobal auzoko 62.ean, 168.181 €-ko aurrekontuarekin.

7.º.- Licencias urbanísticas.-

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes emitidos, acordó, por unanimidad, conceder las siguientes licencias urbanísticas, que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en el mismo, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:

- 1.º.- Colonia Infantil de Sukarrieta (Expte. 19/16), para reformas en el interior, consistentes en el acondicionamiento de las plantas baja y primera del edificio, para adaptarlas al uso docente, en el barrio de Axpe, con un presupuesto de 34.946,99 €.
- 2.º.- M. J. R. A. (Expte. 26/2016), para reforma de caserío, en el barrio de Axpe, 89, con un presupuesto de 104.224,37 €.
- 3.º.- M. C. E. B. (Expte. 42/16), para reforma parcial de caserío, en el barrio San Cristóbal, 62, con un presupuesto de 168.181 €.

8.- Egurra ateratzeko landa-bideen erabilerarako baimena Explotaciones Forestales Egurmendi, S.L. enpresari.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen baimena ematea Explotaciones Forestales Egurmendi, S.L. enpresari, I. L. T.en izenean (4/16 Txost.), egurra ateratzeko landa-bideak erabil ditzan; baimena “Urkisarre” mendiari (Bermeoko udal-barrutia) dagokio, eta Goiherriko bidea erabili beharko du, 496,48 estereoan, Udalarari jakinarazi behar izanda egurra ateratzen hasiko den eguna.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzordeak adostu zuen harremanetan jartzea egurra ateratzeko enpresa arduradunarekin, egurra Bermeorantz atera dezan iradokitzeko, ibilbidea motzagoa baita.

8.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera de Explotaciones Forestales Egurmendi, S.L.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a Explotaciones Forestales Egurmendi, S.L. en representación de I. L. T. (Expte. 4/16), correspondiente al monte “Urkisarre (término municipal de Bermeo), utilizando el camino de Goiherri, en un número de 496,48 estéreos, debiendo comunicar al Ayuntamiento el inicio de la saca.

Asimismo, la Junta de Gobierno Local, acordó ponerse en contacto con la empresa encargada de la saca, para sugerirle que saque el producto forestal hacia Bermeo, por ser un trayecto más corto.

9.- Aire-Norteren idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen aldeko iritzia ematea Mungiaiko Udalak “ner group”en parte-hartzearekin eta Aire Norte enpresaren laguntzarekin antolaturiko STOP-FA MTB proba solidarioa egiteari dagokionez.

9.º.- Escrito de Aire-Norte.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó informar favorablemente la realización de la prueba de carácter solidario STOP-FA MTB organizada desde el Ayuntamiento de Mungia con la implicación de “ner group” y con la colaboración la empresa Aire Norte.



Busturiko
Udala



Akta

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Alkatea/El Alcalde,

Fdo: Aitor Aretxaga Telletxea

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez